





Energia kontsumoa EAEn





Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea
Kontsumitutako elektrizitateak %2,7 egin zuen behera 2011n, 2010. urtean izandakoaren aldean. Beherakada horren eragile nagusia industria izan zen, %3,9 jaitsi baitzen, eta haren paretsu siderurgia, %3,9 egin zuen behera. Zerbitzu alorrak kontsumoari eutsi zion (+ %0,4) eta bizitegi arloan, berriz, kontsumoa %2,1 jaitsi zen. Laugarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoetan baino askoz gehiago jaitsi da kontsumoa (%8), 2010eko epe berean izan zen kontsumoarekin erkatuta. Hala, industrian %10,7 egin zuen behera eta siderurgian %17,9 jaitsi zen. Zerbitzu alorrak ez zuen aldaketarik izan, eta bizitegi arloan kontsumoak %7,5 egin zuen behera (2010eko laugarren hiruhilekoan izandako hotzagatik gehienbat, 2011ko epealdi berean izandako beroaren aldean).









Gas naturala
2011 urtearen amaieran, gas natural konbentzionalaren kontsumoak 2010ean izandakoaren mailari eutsi zion (-%0,8), guztizko kontsumoak %14,3 behera egin bazuen ere, zentral termikoen funtzionamendu eskasagatik (-%42,1). Laugarren hiruhilekoan gas natural konbentzionalaren kontsumoa -%11,1 jaitsi zen, 2010eko epe berean izan zen kontsumoarekin konparatuta, berokuntzarako erabilera premia txikiagoagatik, urtean zehar izandako goranzko joera txikia aldatuz.



Erregaiak garraioan
Erregaien kontsumoa %1,4 jaitsi zen azaroan, 2010eko hil berean izandakoarekin alderatuta. Gasolinarenak %6,2 egin zuen behera eta gasolioenak %0,6.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 2011n, munduan petrolioaren batez besteko kontsumoak %1,2 egin zuen gora, 2010ean izandakoaren aldean, eta 88,1 Mbpd iritsi zen.

Europar Batasunean %1,4 egin zuen behera kontsumoak (14,4 Mbpd), AEBetan %1,6 (18,9 Mbpd) eta Txinan, ordea, %6,9 egin zuen gora (9,8 Mbpd).

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, 2011 urtearen amaieran, gas naturalaren kontsumoak %6,9 egin zuen behera; batez ere, azken hiru hilabeteetan izandako jaitsieraren ondorioz, %12,5 jaitsi baitzen.



2011n, elektrizitatearen guztizko kontsumoak %1,8 egin zuen behera, 2010ean izandakoarekin erkatuta, eta laugarren hiru hilabeteetan %4,7 jaitsi zen.

Garraioan, erregaien kontsumoak %7,7 egin zuen behera azaroan, 2010eko epe berarekin konparatuta (%6,2 metatuan); gasolinaren kontsumoa %8,1 jaitsi zen, eta %7,6 gasolinaren kasuan (%6,7 eta %4,1 urteko metatuan, hurrenez hurren).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %6 egin zuen behera azaroan, urteko metatuan %7,4 igo bazen ere.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta JODIren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Abenduan, Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 108 \$ (81,9 €) izan zen. Urtean batez besteko prezioak %39,3 egin zuen gora, aurreko epealdian izandakoaren aldean (%32,6 eurotan).

Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %19 igo zen azaroan, 2010eko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 23,16 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %29 egin zuen gora urrian, iazko hil horretan izandakoaren aldean (29,7 €/MWh).

Ikatzaren prezioa

Ikatzaren prezioa azaroan 114,8 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %7,9 igo da.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %8 egin zuen gora abenduan, urtebete lehenago hil horretan izandakoaren aldean, eta 50,07 €/MWh iritsi zen.

Erregaien prezioa

EAEn, gasolioaren prezioa 1,28 €/l izan zen abenduan; gasolinaren prezioaren mailan jarri. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %11,8 eta %5 igo ziren, hurrenez hurren.

CO₂-ren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 9,5 €/t izan zen azaroan; 2010eko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %35,9 egin zuen behera.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFaren datuetan oinarrituta.

